

Aloña Aldasoro Zabala naiz eta 1998ko maiatzaren 21ean jaio nintzen, hortaz, 13 urte dauzkat.

Txiki-txikitatik nabil Jakintza ikastolan , 2 urte bete nituenetik, hain zuzen ere. Oraindik, bertan jarraitzen dut DBHko 2.maila egiten.

Nire zaletasunen artean, zaldian ibiltzea eta lagunekin irtetea ditut gogokoen, baina asko gustatzen zait futboleko aritzea ere.

Lehenengo aldia da idatz lehiaketan parte hartzen dudala eta oso pozik nago irabazi dudana 3.sariarekin . Horregatik eskertu nahi diet nire oportetako lagunei eta herriko lagunei, beraiek animatu baininduten parte hartzera.

## **INOIZ ARGITU GABEKO HILKETAK**

Mahaiaren ertzean eserita dago Andrea, goizeroko lo aurpegi zuriarekin eta lanera joateko gogorik gabe. Baina, kasu larri bat ikertu behar duenez, detektibe moduan lan egitea ez du beste erremediorik. Bat-batean, sukaldeko erloju biribilera eraman ditu bere begi makardunak, eta izugarritzko saltoa jo du:

-Berandu nabil!- esanez.

Tximista baino bizkorrago aldatu, eta autoa hartu du lanerantz joateko. 8:00ak puntuan iritsi da, eta bere gelara sartu ostean, koadernotxo bat ikusi du. Ireki, eta horri guztiak zuri zuriak zeuden. Arkatza hartu, eta ikertzen ari den gertaerak bertan idaztea bururatu zaio.

2011ko abenduaren 7a, ostirala

Anabelen senarra izan dela susmatzen dut, hildakoen artean dauden 2 pertsonekin pasatu baitzuen gau osoa, baina biktimekin hain ondo konpontzen zela kontuan izanik, ez dakit zer pentsatu, hain dira zailak Ordizian gertatutako kasu hauek ... 10 pertsona gabiltza hildako bost biktimen ikerketa egiten, Jokin, Iker, Aroia, ni neu Andrea...eta horietatik 2 soilik dira nire benetako lagunak, Nerea, nire antzera, ile horidun polizia umoretsua eta Amaia, FBIko agente eder eta aparta. Hildako bost biktimen izenak hauexek dira: Eider Villa, Ane Hernandez, Yusip Relaza, Miquel Redondo eta Idoia Lanbroa. Denak hil ziren gau berean, baina ez dakigu hildakoen artean lotura bazegoen, hau da, pertsona berak hil zituen. Autopsia egitera bidali dute eta, esan digutenez, abenduaren 10era arte, ez zaizkigu iritsiko emaitzak.

Susmagarri gehiago ez ditugu, baina ikertzen ari garen artean, badago arraro xamar dabilen polizia eta ez dena fidagarria. Oraingo bost hildako bakarrik daude, baina nire ustez hilketa gehiago izango dira, eta zoritxarrez, ez dakigu noiz arte. Ea bihar, zerbait gehiago ikertzen dugun.

2011ko abenduaren 8a, larunbata

Gaur beste hildako bat aurkitu dugu, Jhiane Benanza. Jada sei biktima daude, eta seigarren biktima honen autopsia egitera bidali dute. Zorionez, ez ditugu berri txarrak bakarrik, ikerketan jarraitzeko frogak ere badugu, hiltzaileari kamiseta apurtu zaio biktima hil ostean, leihotik ateratzerakoan hain zuzen ere. Badirudi, Nike markako arropa zeramala jantzirik, eta badaezpada, kamisetaren zati apurtu hori laborategira bidaliko dugu azter dezaten, agian, ADNaztarnak baititu.. Hemen utzi du erailketan erabili duen arma, baina ez daude hatz markarik, eskularruak zeuzkalako jantzirik. Bihar iritsiko zaizkigu Nikeko kamisetaren probak, ea ADNren aztarnak azaltzen diren bertan.

2011ko abenduaren 9a, igandea

Gaur, Amaia, Nike kamiseta zatiaren proben bila joan da, baina ez da egun osoan agertu. Nik, zerbait gertatu zaiolakoan, deitu egin diot, eta esan dit oraindik ez daudela prest eta bihar goizerako ekarriko dizkidala.

Susmagarri berria agertu da, Marck, FBI-ko agente berria. Oso ondo konpontzen da Amaiarekin, baina azkenaldian ez dute asko hitz egin. Hitz egin zuten azkenaldian, bertara hurreratu eta Marck joan egin zen. Amaiak, lotsati xamarra delad dio, baina nik ez dakit zer pentsatu...

Hildakoen autopsien erantzunak bihar iritsiko dira, eta horrela, beraien artean lotura dagoen ere jakingo dugu. Bukatu ostean, Anabelen senarrarekin hitz egitera ere joango gara, ni, Nerea eta Amaia, eta bertan galdera batzuk egingo dizkiogu. Hala ere, posible da bera ez izatea hiltzailea.

2011ko abenduaren 10a, astelehena

Gaur iritsi zaizkigu hildakoen autopsietako emaitzak, eta badirudi pertsona berak hil dituela denak, gibela falta baitzaie. Guk behintzat hala uste dugu.

Hil zuten lehenengoa, Eider Villa, 22 urte zituen ordiziar, ilegorria eta arkitektoa zen, bere senarra bezala. Etxean hil zuten, sofan etzanda zegoela, hain zuzen ere. Dirudienez, kristal zatiak zituen eztarrian. Botilatik ura edaten ari zen etzanda, eta hiltzaileak botilari eztairantz bultzatu egin eta eztairiaren barneraino sartu zion, bertan botila apurtuz eta Eider arnasarik gabe utziz.

Bigarren hildakoak Ane Hernandez zuen izena, neu bezalaxe 30 urteko neskatoa, gurasoekin bizi zena. Neskataxat hau ere etxean, telebista ikusten ari zela hil zuten. Bat-batean, hiltzaileak gasa piztu zuen eta bera itzaltzera joan zenean, gasaren hodia apurtuta zegoela konturatu zen. Gasa arnastearen ondorioz, konortea galdu zuen, eta hiltzaileak atzeko lorategira eraman zuen. Bertan, zuhaitzetik zintzilik jarri zuen soka lepoaren inguruan zuelarik, eta hortxe utzi zuen ito arte.

Hirugarren hildakoaren autopsiaren arabera, Yusip Benanza zuen izena eta honek 20 urte besterik ez zeuzkan. Marokoa zen gizon jator hau, baina bera txikia zenean, bere gurasoak Ordiziara etorri ziren, eta, gerotik ordiziarra da. Badakigu etxean hil zutela, eserita telebista ikusten ari zela. Bera kontzentratuta zegoen bitartean, hiltzailea atzetik agertu eta mailuarekin kolpe bat eman zion buruan, bertan hilda utziz.

Laugarren hildakoak, Miquel Redondok, 24 urte zituen, hau ere ordiziarra nire moduan. Kanean zegoela hil zuten. Hilketan honek frogatzen du hiltzaileak konplizeak dituela. Biktimak bizkarrean kolpeak ditu, hau da, aurretik zetorkion hiltzaileari begira zegoela, beste batek atzetik jo eta zaku batean sartu zuten. Zakuaren barnean zegoen bitartean, konortea galdu arte kolpatu eta ondoren, audi beltz matrikularik gabeko auto baten aurreko aldean sokaz lotu, eta paretaren aurka aurrerantz eta atzerantz kolpatu zuten hil arte. Hilketan erabilitako soka laborategira bidali zuten atzo, eta gaur jakin dugu hiltzaileak eskularruak zeuzkala.

Bosgarren hildakoak, Idoia Lanbroak, 23 urte zituen eta ordiziar alai zena, Miquel Redondorekin ibilitakoa. Hau autoan sartu behar zenean hil zuten, berak ez zekien autoan motorrari loturik bonba bat zegoela eta motorra piztean, denak eztanda egin zuen. Oraindik ez dakigu zergatik sartu zen autora, hots, ez dakigu nora joateko asmoa zuen.

Eta azkenik, seigarren hildakoak Jhiane Bardouz zuen izena. Hau Yusip Benanzaren antzera marrokiarra zen. Neskato honek 26 urte zeuzkan, baina ez zen bere gurasoekin batera etorri, bakarrik etorri zen ikasketak egitera, eta gustura zegoelako, Ordizian geratu zen. Hau ere etxean zegoela hil zuten. Yusip konturatu gabe, hiltzailea etxera sartu zen, eta afaldu behar zuen elikagaietan pozoia botatzea. Yusipek loak hartu zuen eta ez zen gehiago esnatu.

Autopsiaren emaitzak jaso aurretik, Nereari laborategira deitzeko eskatu diot. Bueltatu denean aurpegi arraroa zuen, misteriozkoa oso. Lan orduko atsedendia hartu ostean, niregana eta Amaiarengana etorri da zerbait kontatu nahi zidalako. Nerea zerbaiten beldur da. Lanean hasi behar ginenez, gero kontatzeko esan diot, eta urrundu egin da gugandik. Ziurrenik, zerbait garrantzitsua edukiko du kontatzeko.

Autopsietako emaitzak jaso ondoren, Anabelen senarrarekin hitz egitera joan naiz bakarrik, beste biak lanpeturik baitzeuden eta galdera batzuk egin dizkiot. Berak esaten duenez, bera ez da hiltzailea, baina nik, hala ere, jarraitu egin dut:

*-Non egon zinen hilket a hauek gertatu ziren gauetan?*

*-Egia da abenduaren 6an Eider Villa eta Ana Hernandezekin egon nintzela, baina, tabernan kopatxo batzuk hartu ostean etxera joan ginen denak, bakoitza bere bidetik.*

*Eta beste hildakoen inguruan... ez dakit ezer, ez nituen ezagutzen.*

*-Ba ahal dago kontatzen duzun guztia frogatzen duen norbait?*

*-Bai, Amaiak kafea hartzen zuen bitartean, tabernatik ateratzen ikusi gintuen, eta beste gauak nire emaztearekin pasatu nituen.*

*-Abenduak 6ra bueltatuz, zerbait arraroa sumatu ahal zenien Anari eta Eiderri?*

*-Ez, beti bezain berekoi eta harroputz jarraitzen zuten biak...*

*Egia esan elkarrizketak aurrera egin zuen, baina Anabelen senarrak esan zigunez berak ez zekien ezer gehiago, hortaz Anabeli galderak egitea oti zitzaidan:*

*-Egia al da zure senarrarekin pasatu dituzula abenduaren 6tik aurreko gau guztiak?*

*-Bai, noski. Denak hiltzailea bera zelakoan zeudenez, hurrengo gau guztiak beraren ondoan pasatzea bururatu zitzaidan, eta hilketak izan direnean, bera nire ondoan zegoen. Harrezkero jakin dut nire senarra ez dela hiltzailea.*

Ez genizkion galdera gehiago egin, baina oso arraroa egin zitzaidan Amaiak niri ezer ez kontatu izana. Honek Anabelen senarra ez dela susmagarria dio, baina nik bihar berarekin serio hitz egingo dut.

Bitartean, Nerearen etxerantz abiatuko naiz, ea orain kontatzen didan goizean kontatu nahi zidana. Bertara iritsi eta txirrina jo dudanean, inor ez zegoela ohartu naiz. Bizilagunei galdetu diet ea egun osoan etxean agertu den, eta esan didatenez beraiek ez dute ezertxo ere entzun. Pentsakor abiatu naiz etxera, zerbait gertatu ote zitzaien beldur, seguruenik oraindik ez zela etxera bueltatu.

Ea gaur gauean frogatzen dudan nor den hiltzailea.

2011ko abenduaren 11, asteartea

Gaur goizean, Andreak telefonoa hartu eta Nereari deitu dio. Nereak erantzun ez dionean, pensakor geratu da, eta bat-batean, aurpegi alaia jarri zaio oso:

*-Badakit nor den hiltzailea!- egin du garrasi, eta orduantxe konturatu da gertatu den guztiaz, froga guztiak garbi adierazten dute nor den. Nerea haren etxean ez zegoenez, hiltzailearen etxean zegoela bururatu zaio eta korrika abiatu da hiltzailearen etxerantz, inori deitzeko astirik gabe.*

Bertara iritsi denean, atea irekita zegoen, sartu eta bertan aurkitu du Nerea sofan botata, panpina baten moduan.

-Nerea! Nerea!-esan du negar zotinka Andreak. Alde guztietara begiratu du mugikor baten bila, baina atzerantz begiratu eta bertan ikusi du hiltzaile misteriotsua, eskuan pistola bat duela. Bat-batean, pistola buruan jarri, eta belarrira hurreratu zaio:

-Banekien etorriko zinela, nor nintzen asmatuko zenuela- xuxurlatu dio, eta hori entzun orduko tiro bat entzun da, Andrea hil duen tiroa.

Hiltzaileak Andreari eta Nereari gibela kendu dienean, Andrearen poltsa ireki eta eguneroko bat aurkitu du, hilketen berri ematen zuena. Bukatuta ez zegoela ikusi du, eta, berehala, axota hartu eta idazten jarri da:

2011ko abenduaren 11, asteartea

“Andrea hil dudanez, gaur nik idatziko dut haren egunerokoa: Duela 3 urte nire ama hil zenetik, nire bizitza aldatu da. Autopsia egin ostean, ez zekiten zerk hil zuen nire ama. Urte batzuk geroago, nire ahizpa amaren sintoma berberak edukitzen hasi zen, eta medikuei kontatu baino lehen, nire kabuz ikertzea erabaki nuen. Ez nuen ezer lortzen eta tristura handiarekin kafea hartzera joan nintzen tabernara. Bertan Anabelen senarra ikusi nuen, Eider Villa eta Ana Hernandezekin tabernatik ateratzen. Neu ikusi ninduenean nigana etorri zen. Berak esan zidanez bazekien nola hil zen nire ama, bere emazteak ere gaixotasun bera pasatu baitzuen. Orduan, berehala, nire ahizparen egoera azaldu nion. Berak gaixotasunaren sendagaia etxean zuela zioen, eta etxera iristean, hildako gizon baten gibela erakutsi zidan. Dirudenez, gizakien gibela gordirik janean gero, gaixotasuna hiru hilabetetara ,gutxi gorabehera, sendatu egiten da, baina ez betirako. Inori ez kontatzeko esan zidan, nire ahizpa ere hilko zuela esanez. Ni hitzik gabe geratu nintzen, eta inori ez niola kontatuko hitza eman nion. Harrezkero, tratu bat daukagu, biotako batek norbait hilez gero, gibela bien artean zatitu beharra daukagu. Berak gau berean hil zituen 5 pertsonen gibelen erdia eman zidan, eta nik Jhiane Bardouz, Nerea eta Andrearen gibel erdien zatiak emango dizkiot, bere emaztea gaizki sentitzen denerako.

Andrearen egunerokoak dioenez, hiltzaileak konplize bat zeukan, noski, horietako konplize bat nintzen ni, eta bestea, berriz, Anabelen senarraren semea zen, Marck, seme ezkutua. Haien semea zela esan balute, azkar atzemango zuten.

Egia esan, ez dut gustuko jendea hiltzea, baina nire ahizpa sendatzeko beste erremediorik ez badago...”

Sinaturik:

Amaia

Kattin